

berria

Saltokietan dira Euskal Sagardoa jatorri izeneko lehenengo botilak

Zigilu berriaren lehen uzta da. Erabat bertako sagarrekin egindako eta kalitate bermedun sagardoa merkaturatu dute 36 sagardogilek



2017-06-06 / Jon Fernandez

Lepo gorridun sagardo botilak aurki daitezke gaurtik aurrera saltokietan, Euskal Sagardoa jatorri izena daramaten lehenengo botilak. Joan den urtarrilean jaio zen sor-marka berria, Eusko Labelaren oinordekoa, eta oraintxe hasi dira merkaturatzen zigilupean aurten ekoitzitako 1,3 milioi litroak —hiru lurraldeetako produkzioaren %12 inguru—.





%100ean Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako sagarrekin egindako sagardoa da, eta Fraisoroko eta Haziko laborategiek frogatutako kalitate bermea daukate. «Jatorri izena bereizgarri bat da sagardoarentzat, eta balio erantsia emango dio merkaturatzerakoan», adierazi zuen Arantxa Tapia Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapeneko sailburuak, atzo, Pasaia (Gipuzkoa) Albaola Itsas Kultur Faktorian egindako aurkezpen ekitaldian.

Oraingoan, 36 sagardogilek egin dute bat jatorri izenarekin, eta aurtengo ekoizpenerako 200 hektarea sagasti erabili dituzte. Nolanahi ere, Jaurlaritzaren asmoa da datozen urteetan sagardogile gehiago batzea sor-markara, eta sagasti kopurua ere handitzea. Zehazki, 2032rako, sagardo guztia bertako sagarrarekin egitea jarri dute helburutzat sektoreak eta instituzioek.

Hamabost urteko ibilbidean, bi marka egongo dira aldi berean: bata, Euskal Sagardoa jatorri izen berria; bestea, Gorenak. Sor-marka berria sortzearekin batera, Gorenak marka pribatua publiko bihurtu dute: lehen hamahiru sagardogilek erabiltzen zuten, eta orain baldintzak betetzen dituen edonork erabili ahal izango du. Gorenak zigiludun sagardoa egiteko, bertoko eta kanpoko sagarrak erabiltzen dira. Nolanahi ere, asmoa da 2032rako bi marketako bakarra geratzea, soilik bertako sagarrarekin egindako Euskal Sagardoarena.

Sor-marka berriaren helburua azpimarratu zuen, atzo, Tapiak: «Sektorea elkartzea, sagardoaren kultura sustatzea eta sagargile eta sagardogileei bultzada ematea da helburua, eta kontsumitzaileari tokiko eta goi mailako produktua ziurtaraztea». Hiru diputazioetako ordezkariak eta sagardogileen sektoreko ordezkariak ere izan ziren Albaolan.

115 sagar mota

Botilek sagar gorri baten irudia eta lepo gorria izango dute, bakoitzak berariazko zenbakidun berme zigiluarekin; era berean, botila bakoitzak bere sagardotegiaren etiketa eramango du. Sor-markak azaldu duenez, bertako 115 sagar mota onartu dituzte sagardoa egiteko, eta zehaztu du botila sorta guzti-

guztiek pasatu beharko dituztela kalitate kontrolak.

Euskal Herrian 87 sagardotegi daude, eta iaz 12,7 milioi litro sagardo ekoitzi zituzten: sagarren %45 zen hemengoa, eta %55 kanpokoak. Oraingoz, Euskal Sagardoa jatorri izenetik kanpo geratu dira Nafarroako eta Iparraldeko sagardogileak: Nafarroako Sagardogileen Elkarteak eta Iparraldeko Sagartzea Elkarteak interesa agertu dute sor-markan sartzeko, eta jatorri izenak berak ere adierazi du baduela interesa. Tramitazioa zailduko litzateke, administratiboki erkidego eta estatu ezberdinak direlako, baina aztertzeke prest dago sor-marka.

Sentitzen dugu, erabiltzen ari zaren nabigatzailea ez da bateragarria. Disquisek ondorengo bateragarria:

- [Firefox](#)
- [Chrome](#)
- [Internet Explorer 11+](#)
- [Safari](#)



Jon Fernandez

Jarraitu @JONfrndz

PUBLIZITATEA



Ekonomia saileko albiste gehiago

Albiste nagusiak



Selektibitatea gaur hasiko da Hego Euskal Herrian



Hizkuntz eskubideak berma daitezen, beste kontratazio eredu bat eskatu du Behatokiak



EH Bildu gidatzeko zerrenda bakarra egongo da hilaren 17ko kongresurako

Gehien irakurriak >



'Oskara'-k dantza ikuskizun onenaren Max saria jaso du, eta Kukaik, talde onenarena



Berria



EH Bildu gidatzeko zerrenda bakarra egongo da hilaren 17ko kongresurako

Jokin Sagarzazu



Eskolartekoa
Miren Amuriza



«Bizitza osorako gordeko dut
euskal zaleen babes»
Eñaut Agirrebengoa



Sasien gaintek
Iker Tubia



Zerrenda osoa ikusi



Gaiarekin zerikusia duten albisteak

Euskal Sagardoa jatorri izena sortu dute, eta Gorenak publiko bihurtu

2017-01-09
Berria

Hamaikak 'Sagarrondotik' saioko atal berriak emango ditu ostiraletan

2017-02-14
Berria

Euskal sagardoa jatorri izena sortu dute, eta Gorenak publiko bihurtu

2017-01-09
Berria

Titulu ezezaguna

2016-12-22
Berria

Euskal Sagardo jatorri deitura

2017-06-05
Kronika

Aialde-Berri eta Saizar, Euskal Sagardoa zigilua izango duten sagardotegien artean | Noaua Kultur Elkarte

2017-01-10
Noaua

Sagardotegiak gertu 2017ko denboraldiari ekiteko - Xabi Gorostidi

2017-01-10
Goiena

Txotx sasoia hasteko prest dira sagardotegiak

2017-01-10
ZarauzkoHitza.eus

Berria.eus - Euskal Editorea S.L.

Telefonoa: 943 304 030 • Faxa: 943 590 172

Helbide elektronikoak: Webgunea: webgunea@berria.eus |

Publizitatea: publi@bidera.eu

Harpidetza: harpidetza@berria.eus

Lege Informazioa | Pribatutasun politika | Cookieak |
Publizitatea | Bidera zerbitzuak
© Creative Commons lizentzia



zerbitzua eta
lana euskaraz



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



Gipuzkoako Foru Aldundia

berria
taldea

berria

bidera
zerbitzuak

HITZA

Mauka

BADOK



iragarkilaburrak.com



